



PRENTSARAKO OHARRA

18/06/18

Elantxobeko Itsasoko Etxeak, Probintziako Zuzendaritza Poliklinikoak eta Familia Arretako zerbitzuak zentrau dabe Gizarte Ekintzako Diputatuaren agerraldia

Elantxobeko Itsasoko Etxea, Probintziako Zuzendaritza Poliklinikoa eta Familia Arretako zerbitzua izan dira Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Diputatuak jagokon Batzordean gaur goizean landu behar izan dituan gaiak, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek eskatuta.

EH Bildu taldeko Josu Unanue batzordekidea izan da bere eskariaren zergaitiak azaldu dituana. Elantxobeko Itsasoko Etxearen kasuan, Unanuek interesa agertu dau, Diputatuak egin ebazan adierazpen batzuk dirala eta. Zentroa “auto-kudeaketarako bidean” egoala esan eban Diputatu andreak. Horri jagokonez, EH Bilduko ordezkariak esandako horren esanahia eta azkenengo urteetan egindako inbertsinoak ezagutu gura izan ditu.

Isabel Sánchez Robles Diputatuak gogoratuarazo dauenez, higiezinaren titulartasuna Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarena da, baina Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari (GUFÉ) lagata dago. Azaldu dauen moduan, gaur egun zentroa “transferentziatik taberna-kafetegi jarduerara dago zuzenduta”; horrez gain, adierazo dauenez, zentroak kudeetako modua “espazioaren erabilera tradizionala errespetetean” oinarritzen da. Zerbitzuaren kudeaketari jagokonez, emakidadun baten esku dago “eta Foru Erakundeari errentako kanona emoten deutso, kontraprestazino ekonomiko moduan”.

EH Bildu taldeak, bere aldetik, Probintziako Zuzendaritza Poliklinikoaren egungo egoerea ezagutu gura izan dau. Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, aurreko kasuan moduan, titulartasuna Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarena da; 30,50 m² dituan lokala Itsasoko Gizarte Institutuaren Probintzia Zuzendaritzako eraikin nagusiaren lehenengo solairuan dago. Leku hori, Institutuko, Diruzaintza Orokorreko beharginei eta itsasoko langileei zuzendutako prestakuntza beharretarako dago egokituta; ganera, “mantentze baldintzak guztiz egokiak dira”. Gaur egun, barrikuntza lanak egin eta gero, daukan leku kopurua, 15 personakoa gehi irakaslea da. Foru Diputatuaren agerraldia amaitzean, azkenengo hiru urteetan ez dala inbertsinorik egin adierazo dau, “ez ziralako beharrezkoak”.

Isabel Sánchez Roblesek, Podemos Bizkaiak eskatuta, landu dauen azkenengo gaia, Familiako Harrera Zerbitzuaren desbinkulazinoaren ganekoa izan da, harrera jaso izan dauen pertsona adinez nagusi egiten danean. Gai horren ganeko eskumenak bere Sailarenak ez dirala adierazo arren, bere agerraldiaren motibazinoan aurreratzen zan moduan, harrera jasoten dauen pertsona adinez nagusi egiten danean “modu formalean” familiako harrera programatik kanpo geratzen dala azaldu dau Gizarte Ekintzako Diputatuak. Halanda be, “harrerea egiten jarraitzen dauen harrerako familiaren batek

amaitu eta gero laguntza behar badau, hori balorau egiten da, eta familiari behar dauen laguntza tekniko guztia emoten jako”.

Ildo berean, Aldundiko arduradunak, Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun Saileko Emakume eta Gizarteratze zerbitzuak eta Gizarte Inklusioa sustatzeko zerbitzuak kudeatutako emantzipazio programak aitatu ditu. Harrera zerbitzua jaso daben eta daborduko adinez nagusi diran persona guztiek jasoten dabe hori. Zerbitzu batetik besterako bidean, personak koordinatzaile baten laguntasuna jasoten dau Umeei zuzendutako zerbitzuaren kasuan. Dana dala, Isabel Sánchez Roblesekin azpimarratu gura izan dau Harrera Zerbitzuaren helburua “bakotxaren familia biologikoan barrero integretea” eta “inor atzean ez geratzea” dala.

Talde guztiek Foru Diputatuak emondako informazioa eskertu eta balioan jarri daben arren, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeetako batzordekideak bat etorri dira esatean Bizkaiko Foru Aldundiak luzatu egin beharko leukela zerbitzua, daborduko 18 urte bete dabenez kanpoan ez geratzeko.

ERROMOKO IBAR NAGUSIEN ETXEA

Eguneko gai zerrendea, Erromoko Ibar Nagusien Etxearen itxiera dala eta Erromoko Erretirauen Alkartearen errebindikazioen aurrean euren aldeko eretxia agertzeko EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek batera aurkeztu daben Arauz Besteko Proposamenagaz osatu da. Oposizio talde guztiak alde agertu diran arren, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak kontrako botoa emon dabenez, proposamena ez da onetsi.

Eztabaidaren hasieran, Josu Unanue EH Bilduko ordezkariak eta Josean Elguezabal Podemos Bizkaia taldekoak, zentroak gaur egun bizi dauen egoera salatu dabe ganerako batzordekideen aurrean: ildo berean, proposamena aurkeztu daben batzordekide biek, gero eta zerbitzu gutxiago dagozala kritikau dabe: “apurka apurka bertatik kanporatzen dabilz”. Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak adierazo dau “batzar politiko batetik”, beharrezkoa dala esatea “zer edo zer ez dala ondo josita geratu, kaltetuak ez dagozalako pozik, eta hori dala landu behar dan eremua”. Eduardo Andrés Talde Popularreko batzordekideak, bere aldetik, udal arloko gaia dan arren, Foru Aldundiak “Erromoko Udalgaz dagozan alkarrizketak bultzatu daikezala” adierazo dau, “lokalaren parte batean mendekotasuna daukien persona nagusientzako eguneko zentroa egiteko”.

Euskal Sozialistak taldeko Juan Oterminek, barriz, “aldean autonomiak, eutsi eta gorde beharreko balioa izaten jarraitu behar dauela” adierazo dau. Hori dala eta, “Udal Gobernuaren erabagia errespetetan jarraituko dogu, legea euren alde daukie eta”, esan dau. Euzko Abertzaleak taldeko Jon Sánchezek, bere aldetik, “erabagi horren kontra egongo dan osokoaren akordioa ez badago lekuz aldatzeko borondaterik ez dagola” esan ostean, ganerako taldeei “euren arazoak Batzar honetara ekarten deuskuen personak eta erakundeak zalantzen eta arduren aurrean sensibilitatea” agertzeko eskatu deutse, alde batetik, eta, bestetik, “gai horreek lantzeko ardurea daukienean legitimotasunak goitik behera errespetetako”. Sánchezek esan dauenez “ez goaz bide onetik tutoretza horretan sartzen bagara”.

NOTA DE PRENSA

18/06/18

La Casa de Mar de Elantxobe, la Dirección Provincial Policlínica y el Servicio de Acogimiento Familiar centran la comparecencia de la Diputada de Acción Social

La Casa de Mar de Elantxobe, la Dirección Provincial Policlínica y el Servicio de Acogimiento Familiar han sido las tres cuestiones que la Diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha tenido que tratar esta mañana en la Comisión correspondiente a petición de los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia.

El apoderado Josu Unanue, del grupo EH Bildu, ha sido el encargado de exponer los motivos de su solicitud. En el caso de la Casa de Mar de Elantxobe, Unanue se ha interesado por unas declaraciones realizadas por la Diputada en las que afirmaba que el centro estaba “encaminado hacia la autogestión”. A este respecto, el representante de EH Bildu ha querido conocer el significado de esta afirmación y las inversiones realizadas en los últimos años.

La Diputada Isabel Sánchez Robles ha recordado que la titularidad del inmueble corresponde a la Tesorería General de la Seguridad Social pero que se encuentra cedido al Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS). Tal y como ha explicado, el centro actualmente “está destinado desde la transferencia a la actividad de bar – cafetería”; asimismo ha manifestado que la forma de gestionar estos centros se basa en “respetar el uso tradicional de estos espacios”. En lo que respecta a la gestión del servicio, ésta se encuentra en manos de una concesionaria “satisfaciendo al Instituto Foral un canon arrendaticio como contraprestación económica”.

Por otra parte, el grupo EH Bildu ha querido conocer la situación actual de Dirección Provincial Policlínica. La responsable foral ha explicado, al igual que en la ocasión anterior, que la titularidad pertenece a la Tesorería General de Estado; el local, de 30’50 m² se encuentra en la planta baja del edificio principal de la Dirección Provincial del Instituto Social de la Marina. El lugar se encuentra acondicionado para labores de formación destinadas al personal del Instituto, Tesorería General y trabajadores del mar; éste, además, “se encuentra en perfectas condiciones de mantenimiento”. El aforo actual, tras una reforma, es de 15 personas más el docente. La Diputada Foral ha concluido su intervención asegurando que no se han realizado inversiones en los últimos tres años “por no ser necesarias”.

La última de las cuestiones tratadas por Isabel Sánchez Robles, esta vez a petición de Podemos Bizkaia, ha sido en torno a la desvinculación del Servicio de Acogimiento Familiar, una vez cumplida la mayoría de edad por parte de la persona acogida. A pesar de aclarar que ésta no se trata de una competencia de su Departamento, la Diputada de Acción Social ha explicado cómo, tal y como ya avanzaba la motivación de su comparecencia, una vez la persona acogida ha alcanzado la mayoría de edad, deja de pertenecer “formalmente” al programa de acogimiento familiar. No obstante, “si alguna familia de acogimiento y que siga acogiendo necesita algún apoyo con posterioridad al

mismo, se valora y se ayuda a la familia con todo el apoyo de carácter técnico que necesite”.

En la misma línea, la responsable foral también se ha referido a los programas de emancipación gestionados tanto por el Servicio de Mujer e Intervención Social como el servicio para la Inclusión Social del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, con el que cuentan todas aquellas personas mayores de edad que han pertenecido al servicio de acogimiento. En este tránsito de un servicio a otro la persona es acompañada por un o una coordinadora de caso del Servicio de Infancia. Sin embargo, Isabel Sánchez Robles ha querido insistir en que el objetivo del Servicio de Acogimiento es “la reintegración en su familia biológica” y que “nadie se quede atrás”.

Si bien todos los grupos han agradecido y han puesto en valor la información transmitida por la Diputada Foral, tanto la representante de Podemos Bizkaia como la del grupo EH Bildu han coincidido en la idea de que la Diputación Foral de Bizkaia debería extender el servicio a aquellas personas acogidas que han cumplido los 18 años.

IBAR NAGUSIEN ETXEA DE ROMO

El orden del día se ha completado con el debate de una Proposición No de Norma presentada conjuntamente por los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia para expresar apoyo a las reivindicaciones de la Asociación de Personas Jubiladas de Romo ante el cierre de la Ibar Nagusien Etxea de Romo. A pesar de contar con el apoyo de todos los grupos de la oposición, la negativa de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos ha impedido que ésta fuera aprobada.

Al comienzo del debate, tanto el representante de EH Bildu, Josu Unanue, como el de Podemos Bizkaia, Josean Elguezabal, denunciaban ante el resto de apoderados la situación actual en la que se encuentra el centro; en la misma línea ambos proponentes han criticado también la falta, cada vez mayor, de servicios: “se les está sacando de allí poco a poco”. El representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha manifestado que “desde una cámara política” es necesario decir “que algo no ha quedado bien hilvanado porque los afectados no están convencidos de ello y ese es el terreno que hay que trabajar”. Por su parte el apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, ha explicado que, a pesar de ser un asunto de ámbito municipal, la Diputación Foral “podría liderar conversaciones con el Ayuntamiento de Romo para que le ceda parte del local para crear un centro de día para personas mayores dependientes”.

En contraposición, el representante del grupo Socialistas Vascos, Juan Otermin, ha expresado que “la autonomía de las partes debe seguir siendo un valor a mantener y preservar” y que por lo tanto “vamos a seguir respetando una decisión del Gobierno Municipal porque para ello les asiste la ley”. Por su parte, el apoderado de Nacionalistas Vascos Jon Sánchez, además de asegurar que “no hay voluntad de traslado salvo que haya un acuerdo plenario que vaya en contra de esa decisión”, ha instado al resto de grupo a, por un lado, “ser sensibles a la inquietudes de las personas y de las entidades que nos trasladan a esta cámara su problemática”, y por otro, “ser muy respetuosos con las legitimidades, con quienes tienen la responsabilidades de abordar estos temas”. Sánchez ha sentenciado asegurando que “no estamos yendo por buen camino entrando nosotros a este tutelaje”.